



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: UGALDETXO

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2022-10-04	19:00	20:30

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux Leonet, Iosune Cousillas, Jose Delgado eta Olaia Lasa			
Herritarrak:	Euskaraz: 20		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 12		Gizonezkoak: 8	
	<30 urte:	31-50 urte: 5	51-65 urte: 12	>66 urte: 3

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Jexuxek aurkezpen txiki bat egin du.
Legaldiaren balorazioa	Jexuxek legealdi honetan aurrera eraman diren proiektuen berri eman du.
2023eko aurreikuspena	2023. urteko aurrekontuak aurkeztu dira.
Auzoa	<p>Industrialdean (ihurritakoa) zer egingo den jakin nahi du auzotar batek. Saneamendua aldatu behar den ikusi beharko dela erantzun zaio, bestela asfaltatu eta barandak txukunduko dira.</p> <p>Ugaldetxoko poligonoko sarrera irteerak oso txarrak direla aipatzen du auzotar batek, zabor usaia egoten dela bertan (Alcampoko eremutik datorrena) eta espaloia ere zaharkituta eta moztuta dagoela; ondorioz oinezkoak karreteratik ibili beharra dauka. Semaforo bat jarri zen Juansendon, baina horrek poligonoari ez dio ezertarako balio. Bereziki oinezkoentzat dago arriskutsu poligonoa. Udalak obra batzuk jarri ditu martxan, 2 fasetan burutuko dira lanak, lehen fasean sarrerako hobitegiak, espaloia eta errepidea berrituko dira. Bigarren fasean poligonoaren gainontzeko zatia burutuko da.</p> <p>Mamuteko autobus geltokian autobus paradara joateko zebra bidea jartzea komeni litzake, izan ere, jendea karreteratik pasatzen da oinez. Bide hori</p>

aldundiarena dela gogorarazten da eta zailtasunak izango dira hori burutu ahal izateko. Ahal ere gogorarazten da auzotarrei zubi azpitik pasatzeko aukera dagoela paradaraino.

Alcamporen atzeko aldea itxita dago istripua gertatu zenetik eta horren egoeraren barri jakin nahi du auzotar batek. Eremu hori Alcampo eta Mamut galeriena dela erantzuten zaio, eta hori berritzea berari dagokio. Gaur egun proiektu bat egiten ari dira. Ideia da proiektu hori gauzatzean atzealdetik bidegorria egitea, eta bidegorri bai hartuko luke udalak beregain.

Ugaldetxoko poligonoan kotxe erreak eta daude eta itxura txarra ematen duela dio auzotar batek. Errepidea udalarena bada ere, ondoren eremuak pribatuak dira eta hor udalak ezin duela esku hartu erantzuten zaio. Udalak poligono horretako eremu publikoak berritze lanak behar dituela garbi dauka eta horixe egiteko asmoa dago hurrengo urtean.

Auzotar batek aipatzen du etxera iristen zaizkion erreziboak eta kontribuzioak ez dituela ulertzen, zeinek azalduko ote dion jakin nahi du. Udaletxeko lehenengo solairuan galdetu ezkerrean azalduko diotela eta dituen zalantzak argitu erantzuten zaio.

Goienarren proiektuaren inguruan zalantzak daude. Azaltzen da gaur egun badagoela herritar talde bat kooperatiba bat sortzeko ideiarekin, jada martxan daude eta edonor interesa balu deitu eta galdetu dezake.

Ugaldetxoko promoziok berriak Amenabarrek gauzatuko ditu eta etxe horiek egiteak obligatzen du karretera guztiak burutzera. Karga urbanistiko handiak ditu eta horregatik egon da geldik orain arte. Etxebizitza aldetik ezin da jakin orain arte zenbat etxebizitza dauden, baina etxebizitza berriekin bikoiztuko litzake etxebizitza kopurua seguraski zentroan.

Ugaldetxoko eskola zaharrak zeinenak diren jakin nahi du auzotar batek, izan ere kezkatuta dago egoera txarrean dagoelako. Azaldu zaio berritze lan txiki batzuk egin zirela, baina begiratzeko konpromezua hartzen du udalak. Garbi utziz bertan gauza gutxi egingo dela, izan ere proiektu berriaren barruan eskola horiek desagertu egingo dira.

Auzotarrak kezkatuta daude etxebizitzak burutzen direnean aparkalekuekin zer gertatuko den, izan ere futbol zelaiak jende asko erakartzen du. Udalak arazoak Amenabarri mahai gainean jarri beharko dizkio eta obligazio batzuk bete

beharko baditu ere negoziatu beharko da. Hala ta guztiz ere, etxe berriek seguru azpian aparkalekua izango dutela. Auzotar batek aipatzen du paradako etxe berriak aparkaleku gabe eginak direla eta harrigarria iruditzen zaiola gaur egun.

Udalak Amenabarri frontoia eskatzeko gomendioa azaltzen du auzotar batek. Leku egokia ikusten da frontoia lokal ondoan egitea auzotarren iritziz. Jexuxek aipatzen du kontuan izan behar dela, gaur egun aterpe aukera ezberdin asko dagoela frontoia izan gabe ere, baloratu beharko litzake zein estalki mota den egokiena auzoarentzat.

Auzoko jaiak egiteko zein leku geratuko den galdetzen da. Etxe berriekin eta errepidea kentzearekin plaza eremu egokiagoak geratuko direla aurreikusten da.

Herri mailan parkeren bat estaltzeko asmorik bai ote dagoen jakin nahi du auzotar batek. Erantzuten zaio mahai gainean dagoen gaian dela, baina ez dagoela aurreikuspen zehatzik.

Eskaera bat egin nahi da, inkisidore baten kale bat dago eta kale horren izena aldatzeko aukera baloratzeko geratu zen udala eta oraindik ez dago erantzunik. Udalak erantzuten du oraindik ez dela gai honekin jarri eta saiatuko direla buelta bat ematen.

Jaiak direla eta udalari eskatuko liokete auzotarrek, gainontzeko auzo guztiekin elkartzea dirulaguntzen inguruan azalpenak emateko. Gaur egun, udalak dirua ematen du eta auzoak etekinak atera ezker udalari bueltatu behar dizkio. Jasotako dirua justifikatu beharra guztiz ados daude auzotarrak. Eskaera litzake auzo guztiekin elkartu eta honen inguruan hitz egitea. Iosune kultura zinegotzia geratzen da eskaera honi erantzuna bidaltzeko.

Ugaldetxo eta Altzibar auzoek ez dute estalkirik, hori dela eta 1000 euro gehiago jasotzen dituzte jaietan karpa jarri ahal izateko, baijan kontua da karpa jartzeak 2000 eurotik gorako kostua duela, beraz, 1000 euro gutxiago dituela auzo horrek jaiak antolatzen.

Aurtengo jaietan administrazio aldetik konplikazio gehiagorekin topatu direnaren kexa dira auzotarrak, burokratikoki oztopo askorekin topatu direla eta teknikariaren aldetik ez dutela laguntza gehiegi jaso. Iosunek erantzuten du egia dela burokraziak zailtasunak jarri dituela azken urteetan baina legeak ala



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	eskatzen duela eta egiten ikasi beharko dugula, eta noski udala burokrazia horretan laguntzeko prest dagoela
--	--

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	7,75
bilera ongi gidatu da	7,93
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	7,79
Auzotar kopurua	5,36
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	6,36
Saioa probetxugarria izan al da?	7,43
Egunaren egokitasuna	7,82
Orduaren egokitasuna	8
Lekuaren egokitasuna	8,14